



Krisiaren eragina etxean

Elikagai horniketa arazorik ez da izango EHko supermerkatuetan

Azken aste honetan eta, bereziki, atzo goizez jendez gainezka egon dira

Gerraren beldurrez, euskal herritarrek normalean baino salmenta handiagoak egin dituzte azken egunotan eta supermerkatu gehienak jendez gainezka izan dira. Jendearen jarrerak harritu egin ditu supermerkatuetako saltzaile eta arduradunak, horniketa arazorik ez dela izango zihurtatuz.

DONOSTIA



Supermerkatuetako stand-etan ez da inolako produkturik falta. C. VILLAGRAN

arrazionamendua zela, gorriak ikusi zituztela. Gosea bazter guztietatik». Badirudi, beraz, gerrak gosea ekarri dezakeen beldurrak eragin dituela euskal herritarrek neurritz kanpoko erosketak egitera.

Jendeak gehien erosten dituen gaiak ez dira egun gutxitan kontsumatzen diren produktu freskoak, almazentatzeak baizik. Lekale, arroza, azukra, olio, txarkuteria eta gauza enlatatuak dira, saltzaileen esanetan, egunotan gehien saldu direnak, peroduktu iraunkorak alegia.

SALMENTA NEURRI MUGATZAILERIK EZ Honiketa arazorik izango ez dela ere azaldu dute supermerkatuek.

«Ez dugu uste horniketa arazorik izango denik, guk behintzat ez dugu inolako neurri berezirik hartuko. Supermerkatuetako standak beteta daude eta ez da ezer falta». Gainera momentuan behintzat erosketak mugari ez dutela ezarriko aipatu zuten.

Iazko urrian antzerako egoera eman zen merkantzia garraiolari autonomoen grebarekin. Saltzaileen ustez, egungoa eta ordukoa ez daude parekatzerik. «Merkantzia garraiolari greba egin zutenean horniketa arazo handiak izan genituen Orain, aldiz, guk ez dugu horniketa arazorik espero. Gertatzen den gauza bakarra da jendeak normalean baino gehiago erosten duela, zihurrenik kontsumitu dezakeena baino askoz gehiago».

«Jendeak erosketak masiboak egi-

✓ Produktu iraunkorak dira gehien saldu direnak, lekale, arroza, olio, txarkuteria gaiak eta gauza lataratuak.

Euskal Herriko Kontsumitzaile Elkarteen ustez, jendearen jarrera kontsumitzaile guztien aurka doa, prezioek gora egitea ekar dezakeelako.

ten jarraitzen badu guk eskaria handituko dugu. Egunean egunean falta diren produktuen zerrenda egingo dugu eta beharrezkoa balitz eskaria handiagotu. Baina jendeak gehiago erostea ez du esan nahi hornidurari gabe geratuko garenik».

NORMALTASUNA DENDA TXIKIETAN Dena den, gerraren eraginaren tentsioa ez zen atzo supermerkatu guztietan isladatu. Honela, Pryca eta Carrefour-eko supermerkatuetan eguna normaltasun osoz garatu zen. Bertakoen esanetan, gerra eta krisi garaian jendeak erosketak handiagoak egiten zituela «badaezpada». «Normaltasun hau noraino iritsi daitekeen inork daki, baina momentuz gure stok-ak eskari handiei aurre egin diezake. Luzera neurri mugatzaileak egon litezke erregaietan esaterako baina ez lehen mailako elikagaietan» zihur-



Erosleak kezkatu dabilta. C. VILLAGRAN

tatu zuten. Merkatal zentruet gain, dendetara ere jo genuen bertako salmentek gora egin zuten ala ez galdetuz. Hauetan ere normaltasuna izan zen nagusi atzokoan. «Guk ez dugu ez-ohizko ezer nabaritu. Gainera gurean jendeak egunetik egunera egiten ditu erosketak eta ez ditugu salmenta handiak izaten. Dena den, jendea askotan arazorik gabe larritzen da. Badirudi burutik joanda gaudela. komunikabideek jaurtitzen dituzten mezuek ere bultzatzen dute jendea neurritzko kanpoko gauza hauek egitera».

LARRITZEKO ARAZOIRIK EZ Euskadiko Kontsumitzaileen Elkarrekin herenegun

azaldu zuen ez dagoela arazorik jendea horrela larritu dadin. Erakunde honen esanetan jendearen portaera hau kontsumitzaile guztien aurka doa, eskaria handitzen bada prezioek ere gora egin dezaketelako.

«Kasu hauetan —argitu zuten— jende xeheena irtetzen da gaizkien. Izan ere, familia askotan ez da erosketak handirik egiteko dirurik izaten. Jendeak masiboki erosten prezioek gora egin dezakete guztien kalterako, baina, bestalderik, etxean almatzena ez da daukatenez, oinarritzko elikagaiak gabe geratzeko arriskuan daude».

ELA: «Langabeziaren hazkundera eman daiteke gerrak luze jotzen badu»

ELA sindikatuko idazkari nagusia den Jose Elorrietak adierazi duenez, «Golkoko gerrak ekonomian arazoak ekar badituzke, zonalde honetan munduko petrolio erreserben % 70 egoteagatik izango da, petrolio ezinbesteko energia iturria delako nazioetan».

Jose Elorrietak gaineratu duenez, «ekonomian arazo gertatuko dena ezin da momentu honetan petrolioaren bosten bat merkatutik kanpo gertatu».

Dena den, guzti honek ekonomia hazkundera eraman dezake eta inflazioaren gehitzea suten idazkari nagusiak. «Ekonomiak atzera egingo balu eta honen ondorioz inflazioa gehitu, ondorioak benetan ezkorak izango lirateke».

Gainera, ELAko idazkari nagusiak azpimarratu du, munduan eta baita Euskal Herrian ere langabeziaren hazkundera eman daitekeela, gerrak luze jotzen badu.

UGT: «Ondorio ekonomikoak imaginaezinak dira»

UGT sindikatuko gerraren aurkako bere jarraitzailea den Jose Elorrietak adierazi duenez, «inolakoko interes ekonomikoak ez du bizitza bakar baten galera justifikatzen».

Apolinar Rodriguez akzio sindikalerako idazkari adierazi du krisi honek ekonomian izango dituen ondorioak «imaginaezinak» direla, «nahiz eta orain arte Golkoko gerrak Espainia eta Euskal Herriko ekonomian eragin zuzenik ez duen izan».

Dena dela, gerrak ez duela soldata krisirik sortuko azaldu du, «ez bait gaude atzerapen ekonomiko batean murgildurik».

Espainiako Gobernuak Golkoko arazoan daukan parte hartzea «onartezina» dela azaldu dute, eta «EEBBen izakera inperialista eta berarekin dauden estatuek honen aurrean hartu duten paper laguntzailearen erakusketa» dela gerra gaineratu du.

Sindikatuak iturriek argi utzi nahi dute «gure gerraren aurkako jarrera ez dela Saddam Hussein politikaren aldekoatasunarekin nahastu behar».

CCOO: «Hondamendi ekonomikorako urratsak eman dira»

CCOO sindikatuko Konfederakuntza Idazkaritzak Golkoko gerrarekin «ekonomia, sozial eta gizarte mailan kalkula ezinezko ondorioak ekar ditzakeen hondamendirako lehen urratsak» eman direla adierazi du.

Espainiako Gobernuari indar militarren erretiratzea eskatzen dio CCOO bere idatzian, eta «Espainiako langileak inplika ditzakeen neurriak ez hartzea» esijitzen diote. Langilegoari beren lantokietan gerra eta gobernuaren jokabidearen gaitzespena ager dezaten eskatu dio.

Sindikatuak «gerra gelditu eta indar militarra zonalderik erretira daitezkeen» eskatzen du. Halaber, «irakiarrek Kuwait utz dezaten eta mendebaldeko indarrek ekialderik alde egin dezaten» esijitzen du, «nazioarteko instituzioen bitartez konpondu ahal izateko zonaldeko egoera larria».

Bihar bi ordutako geldialdi orokorra egiteko proposamena luzatu dio UGT sindikatuari eta gerraren aurkako ekitaldi bateratu guztietara atxekitzen dio CCOO bere komunikatuan.

CGT: «Gerraren ekonomi-emaitzak langileriaren bizkar»

CGT sindikatuko idazkari nagusia den Jose Elorrietak adierazi duenez, «gerraren ondorioak langileriaren bizkarra dira» dela esan du. Gerra horren prezioa, minutuko 800 milioi libera kostatzen duela jakinik, gastuak, langileriari dizkiotela ordain araziko diote ez eta petrolio konpainia saltzaileei.

CFDT sindikatua kezkatua agertzen da, gerra horrek gizarte mailan izan dezakeen ondorioetatik baina erru osoa Saddam Hussein botatzen diote. Aliatu indarren erasoan, nazioarteko eskubideen zaintzeko ezinbesteko urratsa ikusten dute. Nahiz eta gerran izan, negozio bidea beti irekirik atxiki behar dela diote eta horretarako, beren aldetik, nazioarteko mailan arabiar, palestinar eta israeliar sindikatuak dituzten harremanak zainduko dituztela bereziki adierazi digute.

EHLE, Euskal Herriko Langileen elkartek langileria eta herri zapalduen bizkar egiten den gerra dio, langile abertzale gisa beraz, gerra horren gelditzeko mobilizazioetan parte hartzea deitzen dute.